

LASARTEKO BERRITZEGUNEA 2006 /2007

MINTEGIA : IKASLE ETORKINAK EUSKALDUNTZEKO

MATERIALAK (LEHEN HEZKUNTZA)

MATERIALAREN FITXA

IRAKASLEA

Inge Arretxe Dorronsoro

IKASTETXEA

Hirukide Jesuitinak

MATERIALAREN IZENA

- Materia eta bere ezaugarriak lantzeko txostena

URRATSA ETA MAILA*

Sakontze urratsa, B maila (5. maila).

HELBURUA

- Ingurunean lantzen dituzten kontzeptu garrantzitsuenak ulertzea.
- Ingurunearekin erlazionaturiko hiztegi garrantzitsuena barneratzea.

PROZEDURA

Txosten hau, gaia gela barruan lantzen hasi aurretik (hori izango litzateke egokiena) edota lantzen doazen bitartean egiteko da, liburuaren lagungarri gisa. Bertan, liburuko kontzeptu garrantzitsuenak azaltzen dira, irudi askoz lagunduta eta era sinple batean. Gaiaren inguruko ariketa erraz batzuk ere azaltzen dira.

Nahiz eta hasiera batean ikasle etorkinentzat eginak egon, hezkuntza behar bereziak dituzten haurrekin erabiltzeko ere baliagarriak direla iruditzen zait.

BALIABIDEAK

Ibaizabal argitaletxeko inguruneako liburuan oinarrituta dago guztia, beraz, liburua bera.

Urratsaren eta Mailaren sailkapena egiteko, Ima Ortega irakaslearen honako dokumentua erabili dugu : *Urrats bakoitzaren ezaugarriak eta lan egiteko oinarritzko estrategiak* (www.elkarrekin.org/elk/IEHI).

1-2 urratsei, Oinarritzko Urratsa deitu diogu eta 3-4 urratsei, Sakontze Urratsa. 1-3 mailei, A Maila izena jarri diogu eta 4-6 mailei, B Maila.


MATERIA



MATERIA

- Materia ikusi, usaindu, dastatu eta ukitzen da.

Materia




egiten da.

- Materiak **espazioa** okupatzen du eta **pisua** du.



INGE ARRETXE - HIRUKIDE JESUITINAK -

- Bi motako materialak daude: **jatorri naturaleko materiala** eta **jatorri eraldatuko materiala**.



MATERIAREN EZAUGARRIAK


- **Bolumena:**

- Materiak hartzen duen espazioa da.
- Metro kubikotan neurtzen da (m^3). Normalean, litrotan.




- **Masa:**

- Gorputzak duen materia kantitatea da.
- Kilogramotan neurtzen da.



- **Dentsitatea:**

- Masaren eta bolumenaren arteko erlazioa da.



MATERIAREN EGOERAK

- **Solidoa:**

- Bolumena eta forma finkoa du.
- Gogorak edo elastikoak dira.



- **Likidoa:**

- Forma aldatzen du.
- Bolumena finkoa du.




- **Gaseosoa:**

- Forma eta bolumena aldatzen du.




INGE ARRETXE - HIRUKIDE JESUITINAK -

- Egoera aldaketa:



INGE ARRETXE - HIRUKIDE JESUITINAK -

📖 *Ura zein egoeratan dago?*



📖 *Bete taula:*


	EZ DA ALDATZEN		ALDATZEN DA	
	FORMA	BOLUMENA	FORMA	BOLUMENA
<i>SOLIDOA</i>				
<i>LIKIDOA</i>				
<i>GASEOSOA</i>				

📖 *Zer dira? Zein egoeratan daude?*



MATERIAREN ALDAKETAK

- Gorputza = **gaia**. Gaia materiaz osaturik dago.
- **Aldaketa fisikoak:**
 - Ez da objektuaren gaia aldatzen.



== ○ ==



== URA ==



- **Aldaketa kimikoa:**
 - Objektuaren gaia aldatzen da.



ERREKUNTZA
→



OXIDAZIOA
→



INGE ARRETXE - HIRUKIDE JESUITINAK -

📖 *Zein aldaketa kimiko izan du?*



ERREKUNTZA




OXIDAZIOA



INGE ARRETXE - HIRUKIDE JESUITINAK -

- Bi gai edo gehiago elkarrekin **nahastu** edo **disolbatu** daitezke:



- **Nahasketa:** gai desberdinez osaturik.
 - Adibidez: *paella* (arroza, mejiloia, piparrak, ganbak...).
- **Disoluzioak:** gai bat edo gehiago likidoarekin nahasturik.
 - Adibidez: *esnea kafearekin* (esnea, kafea eta azukrea).